



Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseiluaren akta

ARABAKO TEKNOLOGIA-PARKEA
2022KO /EKAINAREN 14A



Euskadi, auzolana, bien común

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseiluaren akta

BERTARATUAK

Iñigo Urkullu jauna. LEHENDAKARIA

Pedro Azpiazu jauna. EKONOMIA ETA OGASUNEKO SAILBURUA

Arantxa Tapia andrea. EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMENENKO SAILBURUA

Jokin Bildarratz jauna. HEZKUNTZAKO SAILBURUA

Gotzone Sagardui andrea. OSASUNEKO SAILBURUA

Iñaki Arriola jauna. LURRALDE PLANGINTZA, ETXEBIZITZA ETA GARRAIOETAKO SAILBURUA

Bingen Zupiria jauna. KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKAKO SAILBURUA

Ramiro Gonzalez jauna. ARABAKO DIPUTATU NAGUSIA

Unai Rementeria jauna. BIZKAIKO AHALDUN NAGUSIA

Markel Olano jauna. GIPUZKOAKO DIPUTATU NAGUSIA

Bixente Atxa jauna. MONDRAGON UNIBERTSITATEKO ERREKTOREA

Rikardo Bueno jauna. BRTA-ko ZUZENDARIA

Leire Barañano andrea. NEIKER-eko ZUZENDARI NAGUSIA

Ricardo Diez Muino jauna. DIPC-ko ZUZENDARIA

Fernando Cossío jauna. IKERBASQUE-ko ZUZENDARI ZIENTIFIKOA

Manuel Salaverria jauna. INNOBASQUE-ko PRESIDENTEA

Alexander Artetxe jauna. ARTECHE TALDEAREN PRESIDENTE ETA ZUZENDARI DELEGATUA

Pello Rodriguez jauna. DANOBATGroup-eko ZUZENDARI OROKORRA

Mikel Barandiaran jauna. DOMINION GLOBAL-eko ZUZENDARI DELEGATUA

Francisco Quintanilla Guerra jauna. FAES FARMA-ko ZUZENDARI OROKORRA

Juan Ignacio Pérez jauna. JAKIUNDE-ko PRESIDENTEA

Cristina Uriarte Toledo andrea. ZIENTZIA, TEKNOLOGIA ETA BERRIKUNTZARAKO KOMISIONATUA

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseiluaren akta

0. Ongietorria eta hasierako agurra.

Lehendakariak bertaratutakoak agurtu ditu, eta ongi etorria eman die Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseiluak legegintzaldi honetan egin duen laugarren bilerara.

Jarraian, Cristina Uriarteri eman dio hitza, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako komisionatuari, bilera bideratu dezan.

1. Aurreko akta irakurtzea eta onestea.

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseiluak 2021eko azaroaren 30ean egindako azken bileraren akta onartu da.

2. Bileraren nondik norakoak aurkeztea.

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako komisionatuak sarrera orokorra egin dio bileraren edukiari, eta aurretik bidalitako gai-zerrendan sartu ziren aztertu beharreko puntuak gogorarazi ditu.

3. Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Plana 2030. Cristina Uriarte.

ZTBP 2030eko agente-koadroa: Adierazleak.

Cristina Uriartek, hasteko, ZTBP 2030aren agente-koadroaren 18 adierazleen egoera aurkeztu du. Adierazle horiek Planaren 4 helburu operatiboetan bilduta daude, eta 8 neurketa-eremutan sailkatuta. Oraintxe bertan, kasu gehienetan, 2020. urteari buruzko datuak ditugu; eskuragarri dauden azkenengo estatistika ofizialak.

I+G+b emaitzetara ahalik eta gehien bideratzeko lehen helburu operatiboaren barruan, nabarmentzekoa da ezagutzako enplegu intentsiboaren hazkundea, 2021ean %20,1era iritsi baitzen. Nazioartean gehien aipatutako top % 10eko argitalpen zientifikoak ere %22,1era arte hazi ziren urte horretan, baina estatistika-datua finkatu arte itxaron beharko da. 2020an, apur bat hazi ziren goi- eta erdi-mailako teknologiako produktuen esportazioak (%55,35raino), eta nabarmen jaitsi ziren produktu berrien salmentak, enpresa-fakturazioaren aldean (%14,9raino).

Enpresetan I+G+b jarduera sustatzeko bigarren helburu operatiboan, 2020an pixka bat handitu zen I+Gko inbertsioa, batez ere enpresek bultzatuta, 1.490 milioi eurora iritsi arte. Hala ere, enpresa berritzaileen ehunekoak behera egin zuen, nahiz eta apur bat hazi ziren I+Gkoak ez diren berrikuntzako inbertsioak. 2021ean, Patenteen Europako Bulegoan

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseiluaren akta

aurkeztutako eskaerak hazi egin ziren, 223 izatera iritsi arte, eta marka eta diseinu komunitarioen eskaerak murriztu egin ziren.

EAEko I+G+b-ren nazioartekotzea sustatzeko hirugarren helburu operatiboan, I+Gren nazioarteko finantzaketa pixka bat murriztu zen 2020an, 126 milioi eurora arte, H2020 programa amaitzearen ondorioz. Hala ere, programa osoan, finantzaketa %84 hazi zen, aurreko LH7rekin alderatuta, eta Euskadi izan zen biztanle bakoitzeko ekarpen handiena egin zuen Europako 9. eskualdea (Europako 240 eskualderen artean). Aurkeztutako proposamenen arrakasta-tasa ere %19koa izan zen, Europako batez bestekoa (%12) izanik. Bestalde, 2021ean sendo hazi zen nazioarteko lankidetzan egindako argitalpen zientifikoaren kopurua: 1.967ra iritsi zen.

Talentu ikertzailea sustatzeko laugarren helburu operatiboan, 2020an zertxobait murriztu zen ikertzaileen artean doktoreen ehunekoa (%30,4ra arte), bai eta graduako STEM titulazioetarako sarbide berrien ehunekoa ere (%28,77ra arte). Eta, azkenik, ikertzaileen artean emakumeen ehunekoa pixka bat hazi zen, % 36,4ra arte.

Zeharkako Trakzio Ekimenak

Komisionatuak Zeharkako Trakzio Ekimenak sartu ditu ZTBP 2030aren berrikuntza nagusienetakoen artean, Horizonte Europa programaren misioetan oinarrituta. Horien helburua da RIS3 arloen arteko zeharkako lankidetzaz indartzea, lehenetsutako eremu estrategiko gutxi batzuetan I+G+b-ko trakzio-proiektuak identifikatzea bultzatuz.

2022an, ko-lidergo bat definitu da honako hiru ekimen hauetan: "Zahartze osasuntsua", "Mugikortasun elektrikoa" eta "Ekonomia zirkularra", non Sail arduradunek partehartzen duten, Lehendakariarekin batera. Ekimen bakoitzaren irismen tematikoa definitu da, garatu beharreko erronka eta helburu nagusien formulazioa barne. Eta ekimenak abiarazteko gobernantza-eredu bat ezarri da. Eredu horren barruan, batzorde bana ezarri da ekimen bakoitzeko, maiatzaren 5ean eratu zirenak. Lankidetzaz trakzio proiektuen aholkularitza, partehartzea eta baliozkotzea ditu eginkizun, baita horien jarraipena egitea ere. Batzordeak sail arduradunaren eta Komisionatuaren baterako gidaritzapean funtzionatzen du, eta tartean dauden RIS3 arloetako ordezkariak, beste sail eta erakunde publiko batzuetako ordezkariak eta foru aldundietako hiru ordezkariak partehartzen dute.

Gaur egun, zeharkako lankidetzarako trakzio proiektu eragileak identifikatzeko euskarri izango den tresna, izapidetze-fasean dago. Laguntza-programa bat izango da, eta haren lehenengo deialdia urtea amaitu baino lehen abian jartzea espero da.

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseiluaren akta

2022an Berrikuntza Funtsak finantzatutako ekimen estrategikoak.

Komisionatuak, amaitzeko, honako hauek aurkeztu ditu: RIS3 pilotaje-taldeek bultzatutako ekimen estrategikoen zerrenda, ZTB Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sistema nazioartekotzen laguntzeko ekimenak eta azpiegitura zientifiko-teknologiko bereziak bultzatzeko ekimenak.

2022an, Lehendakaritzako Berrikuntza Funtsaren laguntza izan dute, orain arte, hogei ekimenek, eta 5,445 milioi euroko finantzaketa orokorra izan dute.

4. Aholku Batzorde Zientifikoa. Informeen eskaera. Cristina Uriarte.

Komisionatuak, hasteko, azaldu du Aholku Batzorde Zientifikoa Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseiluaren barruan eratzen dela, Zientzia, Teknologia, Ikerketa eta Berrikuntzarako Euskal Sistemari buruzko aholkuak eta proposamenak emateko organo aholku-emaile gisa. Ospe handiko 10 pertsonak osatzen dute, Eusko Jaurlaritzako Lehendakariak izendatuak. Halaber, jakinarazi du egungo Batzordea 2018ko abenduan izendatu zela, eta, beraz, datorren abenduan berritu behar dela.

Aholku Batzorde Zientifikoak Kontseiluari egiten dion ekarpena hobetzeko, Batzordearen hurrengo bileran aurkeztu beharreko bi hausnarketa-txosten egiteko enkargua egitea proposatu da, hausnarketan eta erabakiak hartzen laguntzeko.

Honako 4 gai hauek proposatu zaizkio Kontseiluari:

- Erronka demografikoa eta talentua XXI. mendeko Euskadin.
- Adimen artifizialaren eta robotikaren eragina euskal ekonomian eta gizartean.
- Berrikuntza disruptiboa bultzatzea eta oinarri teknologikoko start-upak sortzea.
- Inklusibitatea eraikiz eta gizarteak teknologia berrien garapenean parte har dezan erraztuz.

Proposatutako gai guztiak laburbildu eta horien garrantziari buruz argudiatu ondoren, Komisionatuak horietako bi lehenesteko eskatu dio Kontseiluari, ondoren Kontseiluaren erabakien artean Aholku Batzorde Zientifikoari txosten bana agintzeko (ikusi aktaren 8. atala).

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseiluaren akta

5. Foru aldundien ekimen estrategikoak Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza babesteko.

Arabako Foru Aldundia.

Ramiro González diputatu nagusiak bere erakundeak Araba Helburu-n bultzatutako proiektuak kokatu ditu; hausnarketa estrategikoko prozesua, herritarrekin eta lurraldeko eragileekin partekatuta, erronkak eta eraldaketa-palankak identifikatzeko. 146 eragilek parte hartu zuten kontsulta-prozesuan, eta prozesu horren ondoren, 12 erronka baliozkotu ziren, Gobernuaren eta Lurraldearen ekintzatik erantzun beharrekoak, lortu nahi den ARABA 2030 Ikuspegia lortzeko garrantzitsuenak baitira. Horien artean daude I+G+b-ko inbertsioa biderkatzea eta digitalizazio-prozesua bultzatzea.

Ondoren, Arabako Foru Aldundiak lagundutako proiektu estrategiko nagusiak aurkeztu ditu, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planean ezarritako RIS3 lehentasunekin bat datozenak:

- Biozientziak/osasuna: Pharmalab 4.0 (terapia biofarmazeutikoei aplikatutako bio-inprimaketako teknologiak), Etxean Bai (adinekoei etxez etxeko arreta emateko gizarte-berrikuntza), Araba a Punto (adinekoen nahi gabeko bakardadeari aurre egiteko eraikuntza kolektiboa), Prestakuntza Teknologikoa (unibertsitate-mailako prestakuntza-eskaintza) eta Araba Talent (goi-mailako prestakuntza nazioarteko erreferentziazko unibertsitateetan, enpresetan talentua txertatzeko).
- Fabrikazio aurreratua: Berrikuntza Irekiko Zentroa (nazioarteko proiektioa duen ekimen aitzindaria, hainbat eragileren arteko lankidetzan oinarritua), Automozioko Fabrikazio Aurreratuko Zentroa (Mercedes Benz, sistema zientifiko-teknologikoa, hezkuntza-komunitatea eta Eusko Jaurlaritzarekin lankidetzan), Vitoria-Gasteiz Araba Mobility Fundazioa (mugikortasun jasangarrirako, logistikarako eta garraiorako laborategia eta proba-bankua), Araba Digitala (administrazio-zerbitzuen digitalizazioa sustatzea) eta Datuaren Ekonomia (GAIArekin lankidetzan aritzea, lehiakortasuna indartzeko eta datuaren ekonomiarantz aurrera egiteko).
- Energia: Hyvalue (hondakinen balorizazio bidez hidrogeno berriztagarria ekoiztea), Hidrogenoaren Ekosistema (Talgo eta Petronorrekin lankidetzan aritzea H2 berriztagarria eta H2ren eskualdeko aldiriko trena hornitzeko azpiegiturak garatzeko), CIC EnergiGUNE (energia elektrokimikoa eta termikoa biltegitratzeko Europako erreferentzia-zentro bihurtzeko) eta Energy Araba SAU (iturri berriztagarrietatik energia sortzen duten instalazioak garatzeko, eraikitzeko eta ustiatzeko).

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseiluaren akta

Bizkaiko Foru Aldundia.

Unai Rementeria ahaldun nagusiak Bizkaiko Foru Aldundia Bizkaia eta Euskadi berrikuntza-maila handiko lurralde gisa kokatzeko helburu estrategikoarekin lerrokatuta dagoela azaldu du. Horretarako, trantsizio teknologiko-digital, energetiko-ingurumeneko eta soziosanitarioekin lerrokatutako programak, proiektuak eta ekimenak garatzen ditu, eta horrek esan nahi du I+G+b-ren aldeko apustua areagotu behar dela.

ETEen lehiakortasuna hobetzeko programa nagusiak laburbildu ondoren (> 27 milioi euro 2022an), ahaldun nagusiak Aldundia buru duten proiektu estrategiko nagusiak aurkeztu ditu, 3 trantsizioekin –teknologiko-digitalarekin, energetiko-klimatikoarekin eta soziosanitarioarekin– lerrokatuta:

- I+G+b bultzatzeko proiektu estrategiko sektorialak eta plataformak: EIC - Energy Intelligence Center (Bizkaia eta Euskadi trantsizio energetikoa errazteko nazioarteko polo gisa, trakzio enpresekin eta Eusko Jaurlaritzarekin lankidetzan. Bestek beste, proiektu hauek sustatzen ditu: H2ko Euskal Korridorea; Global Smart Grids Innovation Hub (Iberdrolak gidatuta eta 60 erakundek baino gehiagok parte hartuta, sare adimendunetan mundu osoko erreferentea izan nahi du); AIC - Automotive Intelligence Center (automobilgintzaren eta mugikortasunaren sektorerako lehiakortasun-lerro berriak garatzen dituen mundu mailako lehiaren zentroa); NIC - Nagusi Intelligence Center (Silver Economy eremuan jarduera ekonomikoa bultzatzea eta produktu eta zerbitzu berriak garatzea); CFAA - Aeronautikako fabrikazio aurreratuko zentroa (ezagutza berriak sortzea eta fabrikazio-teknologia aurreratuetan aplikazioak garatzea, Eusko Jaurlaritzarekin eta EHUrekin lankidetzan).
- Ekintzailtza aurreratua: BAT – B Accelerator Tower (Ekintzailtzaeren Nazioarteko Zentroa Bizkaia Dorrean, Euskadi ekintzailtza eta berrikuntza erreferente bihurtzeko, Eusko Jaurlaritzarekin eta Bilboko Udalarekin lankidetzan).
- Digitalizazioa: Urduliz Bizkaia 42 (pertsonek digitalizazio-gaikuntza aurrera egiteko eta profil digitalen enpresa-eskaria asetzeko, Telefónica Fundazioarekin lankidetzan), Banda zabaleko azpiegiturak eta Datuaren Campusa, Industry Focused Quantum Strategy (industriari aplikatutako teknologia kuantikoen konpetentzia-zentroa, munduko sare batean integratua).

Amaitzeko, Bizkaian enpresek eta start-upek I+G+b arloan egiten dituzten inbertsioak sustatzera eta talentu teknologikoa, zientifikoa, antolakuntzako, kudeaketakoa eta finantzarioa atzerritik erakartzera bideratutako egungo zerga-tresnak aurkeztu ditu.

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseiluaren akta

Gipuzkoako Foru Aldundia. Etorkizuna Eraikiz.

Markel Olano diputatu nagusiak hasteko, 2016an Etorkizuna Eraikiz abian jartzea deskribatu du. Epe luzerako plangintza estrategikoko prozesu aitzindaria da hori, eta Gipuzkoaren etorkizuneko erronkak identifikatzea du helburu, esperimentazioaren eta lankidetzaren bidez. Gogoeta-, esperimentazio- eta etorkizuneko prozesuak konbinatzen ditu, eta bat dator eta kontuan hartzen ditu berrikuntzaren arloko Europako estrategia handiekin, Nazio Batuen GJHeekin eta Euskadiko 2030 Agendarekin, bai eta espezializazio adimenduneko estrategiarekin eta 2030erako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planarekin ere.

Etorkizuna Eraikizen hausnarketa- eta erabaki-prozesuaren ondorioz, Gipuzkoaren etorkizunerako lehentasunezko lan-arloak zehaztu dira, haren indarguneetan oinarrituta. Lehentasunezko arlo horien barruan, Gipuzkoako Foru Aldundiak bultzatutako hainbat erreferentzia-zentro eta proiektu estrategiko bultzatzen ari dira, funtsezko hiru zutabe biltzen dituztenak: ezagutzaren bikaintasuna, enpresa-sare aurreratua eta etorkizuneko garapen-potentzial izugarria.

Ondoren, diputatu nagusiak erreferentziazko zentro eta proiektu estrategiko horiek aurkeztu ditu, ZTBP 2030ean jasotako hiru trantsizio handien inguruan taldekatuta:

- Trantsizio teknologiko-digitala: ZIUR - Industrial Cyber Security Center Gipuzkoa (zibersegurtasun industrialerako erreferentzia-zentroa), iLAB - Digital Gastronomy Lab (etorkizuneko gastronomia maila digitalean birpentsatzeko eta sortzeko espazio berritzailea, balio-kateko eragileei irekia, Tabakaleran kokatua eta Basque Culinary Center-rekin lankidetzan) eta Quantum (teknologia kuantikoen garapena sustatzeko erreferentzia-zentroa).
- Trantsizio energetiko-klimatiko: Mubil (mugikortasun berria sustatzeko poloa, adimenduna eta jasangarria) eta NaturKlima (ekonomia zirkularrean, trantsizio energetikoan eta klima-aldaketan espezializatutako polo berdea).
- Trantsizio soziala eta sanitarioa: Gantt (terapia aurreratua eta terapia genikoa sustatzeko proiektu estrategikoa) eta Adinberri (zahartze osasuntsuaren eremuan Gipuzkoa erreferente bihurtzeko estrategia).

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseiluaren akta

6. RIS3 arloetako proiektu eta ekimen garrantzitsuenak

Arantxa Tapiia: **Industria Adimenduna, Energia Garbiagoak, Elikadura Osasungarria eta Ekoberrikuntza.**

Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburu Arantxa Tapiak hartu du hitza, eta gogorarazi du 2022an pilotaje-taldeek egindako aurrerapenei buruzko memoria bat entregatu dela, eta, ondoren, bere saila bultzatzen ari den lau RIS3 arloetako bakoitzaren proiektu nabarmen bat aurkeztu du.

- Industria Adimenduna: Basque CCAM Lab. Sailak Vicomtechekin lankidetzan bultzatutako living lab bat da, I+G+b arloko sinergiak eta aukerak sustatu nahi dituen mugikortasun konektatuko, kooperatibako eta autonomoko eremuetan (CCAM). Erakunde berria 2022ko apirilaren 20an eratu zen, eta testeatzeko, baliozkotzeko eta ikertzeko lanak egingo ditu, arreta berezia jarriz sistema eta ibilgailu multimodaletan eragiketa-ingurune errealetan, lotutako teknologien heldutasun-maila –TRL– handitzeko. Halaber, balio erantsi handiko zerbitzuak emango ditu mugikortasun konektatuko, kooperatibako eta autonomoko testuinguruetako eragiketa-datu errealei buruz, tokiko, estatuko eta nazioarteko proiektioarekin (AWL nazioarteko enpresaren partaidetza).
- Energia Garbiagoak: Offshore Wind, Demosath. Sare elektrikora konektatutako lehen itsas haize-sorgailu flotatzailea da, eta laster jarriko du abian Saitec euskal enpresak, bere start-up RWeren bidez. Armintzan instalatuko den off-shore haize-sorkuntzako 2 MW-ko prototipoa da. Azpiegitura berri hori ezartzeko kostuaren % 90 tokiko enpresek garatu dute, eta horrek aukera ematen du euskal enpresak offshore energia eolikoaren balio-katearen hornitzaile eta garatzaile izateko.
- Elikadura Osasungarria: Ekonomia urdina, Oarsoaldea. Helburua Oarsoaldeko Plan Estrategikoaren barruan kokatzen da, eta Pasaiaiko Badia ekonomia urdina garatzeko eta eremu horretan jardunbide onenak aplikatzeko marka gisa kokatzea du helburu. Horretarako, talentua eta start-upak erakartzeko ekosistema bat sortuko da, espazio teknologiko lehiakorra ekarriko duena, eta enplegu-potentzial handiko industria-sektoreen garapena bultzatuko da, ekonomia urdin eta zirkularrari lotuta. Gainera, Oarsoaldea inguruko eragileen ekimenak bultzatuko dira, ekonomia urdinean ezagutza, ziurtasun juridikoa eta segurtasuna eskainiz.
- Ekoberrikuntza: EBren misioa, klima-egokitzapena. Euskadik Klima Egokitzapenerako Europako misioan izan duen parte hartzea Life Integral Urban Klima proiektuan parte-hartu izanak bermatzen du, bai eta Horizon Climate4regions Europako eskualdeen

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseiluaren akta

sarearen euskal presidentziak ere. EAEko hautagaitza onartzea ekoberrikuntzako pilotaje-taldeko nazioartekotze-lantaldeak bultzatutako baterako lanaren emaitza izan da, eta, besteak beste, Innobasquek, Ihobek, Tecnaliak eta BC3k partehartu dute.

Cristina Uriarte: Osasuna.

Cristina Uriarte komisionatuak, Gotzone Sagarduy sailburuaren izenean, une batzuk lehenago alde egin behar izan zuena, osasunaren arloko aurrerapen nagusien berri eman du, datorren uztailaren 8an aurkeztuko den 2022-2025 aldirako Osasun arloko Ikerketa eta Berrikuntza Estrategiaren barruan.

Estrategia horren helburua da ezagutza sustatzea eta osasun-arloko ikerketaren emaitzak pertsonentzako onuragarri, hobekuntza sozial eta aurrerapen ekonomiko bihurtzea. Asistentzia sanitarioarekin integratuagoa dagoen ikerketa, Osakidetzarekin, osasun pertsonalizatuak dakartzan erronka teknologiko eta ezagutza-erronka berriei aurre egiteko, ZTBP Euskadi 2030 planaren lehentasun estrategikoetako bat.

Osasun arloko pilotaje-taldeak 2022an egindako aurrerapenen artean, nabarmendu nahi da “Health Data Access Body (HDAB) Ikerkuntza” proiektu estrategikoa, Euskadiko Osasun Sistemaren osasun-datuak eskuratzeko gobernantza-eredua diseinatzeko asmo handiko helburua ezartzen duena, ikerketan erabiltzeko.

Proiektu honen garapenak inpaktu potentzial handia du, paradigma-aldaketa baitakar I+G+b arloan Euskadin, osasun pertsonalizatuaren eremuko erronka nagusiei helduz, hala nola eskala handiko eta analitika aurreratuko datuetarako sarbidea, edo datu eta lagin biologikoetarako sarbidea. HDAB proiektuari esker, Euskadiko Osasun Sistemak zaintzen dituen asistentzia-datuen kopuru ikaragarria eskuratu ahal izango da ikerketarako, era seguruan eta berme juridiko eta datuen babeserako berme guztiekin. Datu horiek ahalmen handia dute ikerketarako, Big Data eta Adimen Artifizialeko teknologiak aplikatzeko, eta produktu eta zerbitzu berriak garatzeko eta baliozkotzeko, osasun-erronkei hobeto erantzuteko eta aukera berriak sortzeko Euskadiko I+G+b arloko produkzio-sare intentsiboarentzat.

Lantalde hori Tecnaliak koordinatzen du, eta Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU), teknologia-zentroak (Tecnalia eta Vicomtech) eta Euskadiko Osasun Sistemako 4 ikerketa-institutuak biltzen dituen partzuergo batek osatzen du. Proiektu hori BIOEF monitorizatzen ari da, eta Osakidetzarekin etengabeko lankidetzan eta elkarriketan garatzen ari da, Datuaren Gobernu Estrategiarekin bat datorrela ziurtatuz. Bestalde, proiektua garatzen laguntzeko, proiektuaren partzuergoak finantzaketa eskatu du Osasun Sailaren laguntza-deialdiko ekintza osagarrien lerroaren bidez.

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseiluaren akta

Osasun Sailak oso ondo daki, alde batetik, osasun-datuek balio handia dutela, I+G+b-tik, pertsonen osasuna hobetzeko, baina, bestetik, oso sentikorra dela informazio hori. Hori dela eta, haren garapenean arreta berezia jarriko da egungo lege- eta arau-esparrua eta herritarrentzako printzipio etikoak eta gardentasunekoak betetzen direla ziurtatzeko, osasun-datuen segurtasunari eta pribatutasunari lotutako alderdiak azpimarratuz.

Hori izango da proiektu adierazgarrietako bat 2022-2025eko Euskadiko Osasun arloko Ikerketa eta Berrikuntzarako Esparru Estrategia berriaren testuinguruan.

Iñaki Arriola: **Hiri Jasangarriak**

Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburu Iñaki Arriolak hasi du bere hitzaldia. Hiri Jasangarrien Pilotaje Taldeak azken urtean garatutako ekimen bat nabarmendu du, Hiri Berroneratzeari buruzko Ikerketa eta Berrikuntzako Zentroa (CI+IRU) abian jartzean datzana.

Hauek dira zentro honen lehentasunezko helburuak:

- Bikaintasun zientifikoaren transferentzia, lidergo teknologikoa eta industrialia eta berrikuntza irekia bultzatzea hiri jasangarrien eremu espezifikoan.
- Bultzatu 2050, Euskal Hiri Agenda ezartzea.

Zentro bat sortu nahi da, CI+IRU, hiri-berroneratzearen arloan erreferente izango dena eta Euskadi hiri-berroneratzerako berrikuntzaren arloko erreferentzia-puntu izango duena, ez bakarrik arlo teorikoan eta zientifikoan, baita transferentzian eta azken aplikazioan ere. Erronka nagusia hiria berroneratzeko proiektuak ezartzea eta hiri jasangarriak sustatzea da.

Egiturari dagokionez, CI+IRU honako hauek osatuko dute: UPV/EHUko hainbat ikerketa-talde partehartuko duten unibertsitate-zentro batek eta erakunde kudeatzaile batek, zeina erakunde publiko, enpresa, kluster, zentro eta institutuek, elkarteek, gobernuz kanpoko erakundeek eta abarrek osatuko baitute.

Proiektua martxan dago, eta 2023an ofizialki eratuta egongo dela aurreikusten da. Aldi berean, unibertsitate-zentroa eta kudeaketa-erakundea eratzen ari dira, bai eta zentro horrek garatu nahi dituen ekintzak ere: ikerketa-mintegiak, transferentzia-foroak, prestakuntza-eskaintza berriak diseinatzea eta hiri-berroneratzeko proiektu berritzaileak abian jartzea.

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseiluaren akta

Zero Plus Ekimen Estrategikoa.

Jarraian, sailburuak Zero Plus ekimena nabarmendu du. Etxebizitza, Lurzoru eta Arkitektura Zuzendaritzak eta Alokabide sozietate publikoak sustatutako proiektua da, ZTBP Euskadi 2030 planaren esparruan.

Zero Planaren ibilbide-orrian oinarrituta, Zero Plus alokairu sozialeko etxebizitza publikoaren eredu berri bat da, pertsonak erdigunean jartzen dituena, bai eta Euskadiko bizitegi-erakuntzaren eta -birgaitzearen sektorea eraldatzeko bultzada bat ere.

Zero Plusen aurrerapen nagusien artean, honako hauek nabarmendu daitezke, besteak beste: Birgaitzearen Liburu Zuria (egiten ari dira), Alokabideren Salesforce Biki Digitalarekin integratzea, Eraikinaren Pasaporte eta Laguntza Plana, eta pilotaje-taldeak laster parte hartuko du hiri jasagarrien eremuko hainbat ekitaldi garrantzitsutan (Rebuild, Life Habitat Kongresua, Eubim Kongresua, etab.).

Bingen Zupiria: Euskadi Sortzailea.

Bingen Zupiria Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuak jakinarazi du memoria bat entregatu dela, Euskadi Sortzailearen Pilotaje Taldeak 2022an egindako jarduerak jasotzen dituena, honako hauek, besteak beste:

- BDCCk (Basque District of Culture and Creativity) 40 aliantza sinatu ditu Industry Map-eko eragileekin; horrez gain, 200 erakunderi aholkularitza eman eta 120 enpresak parte hartu dute BDCC Cluben.
- I+G+B & CCIko nazioarteko kasuen azterketa bat, 30 eskualderekin.
- KSI enpresen erronken deialdia – Unibertsitatea.
- KSI Berritzaile + laguntza-programaren deialdia, berrikuntza-potentzial handiko proiektuetarako.
- Living lab bat eta euskal enpresen presentzia Stuttgarteko Creativity Word Forumean.

Gaitu, Hizkuntzaren Teknologien Ekintza Plana 2021-2024

Ondoren, sailburuak Euskadi Sortzailean sartu diren proiekturik berrienetako batean jarri du arreta, euskara hizkuntza-teknologietara sartzearekin lotuta. Euskara mundu digitalean txertatzeko premia gisa sortu da, eta administrazio publikoak trazio-eginkizuna bete behar du, eskaria edo interes pribatua txikiagoa delako.

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseiluaren akta

Jaurlaritzak duela hilabete onartu zuen Gaitu Plana, Euskararen Teknologien 2021-2024 aldirako Ekintza Plana. Plan horretan 25 ekintza zehatz sartu dira, euskal administrazioak bere eskumeneren esparruan garatuko dituenak, eta euskara hasiera-hasieratik egongo da bertan.

Hizkuntzaren teknologiek hizkuntza prozesatzeko eta dauden hizkuntza-baliabideak (datuak eta ahotsak) nahiz itzultzaile automatikoak eta ahots-interfazeak baliatzeko tresnak ulertzen dituzte. Eta euskal administrazioaren berezko eskumenei dagokienez, ekintzak, batez ere, administrazio elektronikora, hezkuntza-sistemara, helduen euskalduntzera, osasunera, justiziara, turismora, kulturara eta komunikabideetara eta segurtasunera hedatzen dira.

Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio orokorrak bultzatuko dituen 25 proiektu dira, eta horietako batzuk abian daude jada. Proiektu horiek Espainian jada existitzen diren ikerketa-erakundeekin eta erakunde pribatuekin lankidetzan garatuko dira.

Plan irekia da, 2024ra arte proiektu berriak sartzeko aukera emango duena, eta hizkuntzaren teknologien inguruko ekonomia berri bat sortzea bultzatuko duena herrialdean. Izan ere, Euskadik dagoeneko baditu ikerketa-aktibo garrantzitsuak, bai UPV/EHUn (HiTZ - Hizkuntza Teknologiarren Zentroa), bai teknologian (Vicomtech), bai Hitzuli itzultzaile neuronalarekin izandako esperientzia pilotuan.

Proiektu hori bat dator Estatuko Gobernuak hizkuntzaren ekonomia berriari PERTE berri bat iragarri izanarekin. Bertan, espainieraz gain, Estatuko gainerako hizkuntzak ere hartuko dira kontuan, eta horrek Gaitu Planaren irismena eta eragina bultzatzen ditzake.

7. Jokin Bildarratz: **Ikerketa Zientifikoa eta Unibertsitatekoa.**

Hasteko, Jokin Bildarratz Hezkuntzako sailburuak gogoeta egin du talentuak gizarte garatu batean duen garrantziari buruz, bere saila bultzatzen ari den Unibertsitate-Enpresa Estrategiaren esparruan. Talentua, pertsona prestatuak, funtsezkoa izan dira gure oparotasunean. Nola berma dezakegu talentua? Bi bide baino ez ditugu, edo osatu eta atxiki egin behar dugu, edo erakarri eta zaindu egin behar dugu.

Jarraian, 2017-2022ko Unibertsitatearen eta Enpresaren arteko lehen Estrategian izandako ibilbidea eta lortutako mugarri batzuk laburbildu ditu:

- Euskadi aitzindaria eta liderra izan da unibertsitate-hezkuntza dualaren sustapenean.
- Testuinguru berritzaile berriak sortu dira, besteak beste, ikasgela berriak eta enpresa + unibertsitatea edo unibertsitate-prestakuntzako klusterrak lankidetzan aritzeko.

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseiluaren akta

- COVIDaren oldarrari eusteko gai izan gara gure prestakuntza- eta lankidetzalanean.
- Hiru euskal unibertsitateetan 47 titulazio dual daude, 4.800 ikaslerekin. Horietatik 4.200ek baino gehiagok lehen lan-aukera izan dute programa honetan parte hartu duten enpresetan; 600 baino gehiago izan dira enpresa horiek.
- Enpresa-ekintzaziletzako 310 proiektu baino gehiago babestu dira unibertsitateetan.
- Prestakuntza espezializatuko bi kluster sortu dira, 4gune eta KSIgune, 40 fakultate baino gehiago biltzen dituztenak enpresekin eta beste eragile batzuekin.

Sailburuak, amaitzeko, Jaurlaritzak onartutako 2022-2026 aldirako Unibertsitatea + Enpresa Estrategia osatzen duten hurrengo urratsak zerrendatu ditu:

1. Unibertsitate-hezkuntza duala indartzen jarraitzea. 10.000 ikaslek unibertsitate-titulazio dualatan prestakuntza jaso dute, eta 1.000 enpresak parte hartuko dute ibilbide horretan.
2. Lanbide-heziketa dualaren eta unibertsitate dualaren ahaleginak batzea. Eskaintza duala izango da, lanbide-heziketatik hasi eta unibertsitateraino.
3. Unibertsitate-prestakuntza bultzatzea bizitza profesionalean zehar.
4. Eredu dualaren arabera, beste erkidego eta herrialde batzuetako talentua erakartzea bultzatzea. Nazioarteko ikasleen trakziarako euskal unibertsitate-sistema bat izango da.
5. Aurrera egingo da gure abangoardiako zientziak merkatuan duen eraginean. Euskal abangoardiaren ezagutza funtsezkoa izango da enpresa berriak sortzeko.

8. Akordioak.

Cristina Uriarte komisionatuak honako ondorio hauek aurkeztu dizkio Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseiluari, bileraren nondik norakoak laburbiltzeko:

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseiluaren akta

- Lehenengoa: Ezagutzaren arloko enplegu intentsiboari, Europako patenteen eskaerei eta nazioarteko argitalpen zientifikoei buruzko poztasuna agertzea.
- Bigarrena: Zahartze aktiboaren, mugikortasun elektrikoaren eta ekonomia zirkularraren eremuetan ZTBP 2030en Zeharkako Ekimen Eragileen Batzordeak eratzeari buruzko aldeko txostena ematea.
- Hirugarrena: Foru-aldundiek I+G+b bultzatzeko eta, bereziki, ZTBP 2030ekin eta espezializazio adimenduneko RIS3 Euskadi estrategiarekin lerrokatutako ETEei laguntzeko egiten duten ahalegina baloratzea.
- Laugarrena: Euskadin aurrera egiten jarraitzea zientzia-, teknologia- eta berrikuntza-politiken emaitzak iraunkortasun ekonomiko, sozial eta ingurumenekora bideratzeko, Europako politikekin eta estrategiekin bat etorritz.
- Bosgarrena: Hiru trantsizio teknologiko-industrialari, energetiko-ekologikoari eta osasun- eta gizarte-trantsizioari aurre egiten lagunduko diguten proiektu eta ekimen estrategiko handiak lankidetzan publiko-pribatuan bultzatzen jarraitzearen garrantzia egiaztatzea.
- Seigarrena: Esparru akademikoaren eta enpresa-eremuaren arteko lankidetzan indartzen jarraitzearen garrantzia berrestea, onartu berri den Unibertsitatea+Enpresa II. Euskal Estrategia hedatuz.
- Zazpigarrena: Aholku Batzorde Zientifikoari bi txosten egiteko agintzea, Kontseilu honen hausnarketa eta erabakiak hartzea babesteko:
- 1) *Erronka demografikoa eta talentua XXI. mendeko Euskadin.*
 - 2) *Berrikuntza disruptiboa bultzatzea eta oinarri teknologikoko start-upak sortzea.*

9. Galde-eskeak.

Ez dago ez iruzkinik ez galderarik

10. Bileraren itxiera, Lehendakaria.

Lehendakariak formalki amaitu du bilera, haren garapena laburbilduz:

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseiluaren akta

“Arratsalde on, eta eskerrik asko legegintzaldi honetako laugarren bileran parte-hartzeagatik.

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana apustu estrategikoa da. Horrek esan nahi du:

- Konpromiso publiko eta pribatu partekatua dela; eta*
- Konpromiso horrek enpresen, unibertsitateen, ikerketa-zentroen eta administrazio publikoaren arteko lankidetzak eskatzen du.*

Gaurko bileran egindako ibilbidearen eta aurrez aurre ditugun helburuen jarraipena egin dugu.

Halaber, komeni da aurreko urtean lortutako emaitzak nabarmentzea:

- Bat: ezagutzaren arloko enplegu intentsiboaren hazkundera;*
- Bi: ezagutzaren babesean lortutako aurrerapenak;*
- Hiru: nazioarteko lankidetzan garatutako bikaintasuneko ekoizpen zientifikoaren hazkundera; eta*
- Lau: Horizon 2020an lortutako emaitzak.*

Emaitza horien guztien balorazioa oso positiboa da, baina zuhurtzari eutsi behar diogu, bizi dugun ziurgabetasun-testuingurua ezagututa.

2030 Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana Giza Garapen Jasangarriaren eremuan kokatzen da, eta aberastasun ekonomiko jasangarria sortzen eta kalitatezko enplegua sortzen laguntzen du.

2021ean argitaratzen hasi diren emaitzak etorkizun handikoak dira:

- Euskadin enplegatutako bost pertsonatik batek goi-mailako eta maila ertain-altuko industrian edo ezagutza-zerbitzu intentsiboetako enpresetan egiten du lan.*

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseiluaren akta

- Gora egin dute Europako patenteen eskaerek, eta 223 izan dira 2021ean, 2019an baino % 15 gehiago.

- Nazioarteko lankidetzan garatutako 1.967 bikaintasun-argitalpen zientifikoak lortu dira, 2019an baino % 19 gehiago.

- Euskadik % 84 handitu du Horizonte 2020 Europako programaren finantzaketa. Europako bederatzigarren eskualdea gara, 240 eskualderen artean, eta biztanle bakoitzeko ekarpen handiena egiten dugu. Aurkeztutako proposamenen arrakastatasa % 19koa izan zen, Europako batez bestekoa (% 12) baino handiagoa.

Joera positiboa da, baita egoeraren ziurgabetasuna ere. Nolanahi ere, badakigu gure etorkizuna eta ongizatea I+Gko inbertsioak handitzen jarraitzearen mende egongo dela, bai eta enpresa guztiei, batez ere txikienei, beren produktuetan eta negozio-prozesuetan berrikuntza sustatzearen eta laguntzearen mende ere.

Jarraian, etorkizuneko ikuspegiaren funtsezko alderdi batzuk nabarmenduko ditut.

1.- Giza baliabideak eta talentua funtsezkoak izango dira inbertsioak emaitza ekonomiko eta sozial bihurtzeko. Baliabide urria izaten hasi da, eta, beraz, garrantzi handiagoa du gure gaitasuna indartzea talentua prestatzeko, errotzeko, erakartzeko eta atxikitzeko.

2.- Zeharkako Trakzio Ekimenak berrikuntza dira Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planean. Maiatzaren 5ean, hiru ekimenetako Batzordeak eratu ziren, honako eremu hauetan: Zahartze osasuntsua, Mugikortasun elektrikoa eta Ekonomia zirkularra. RIS 3 arloen arteko lankidetzak sustatuko duten eta lankidetzak-proiektu berriak identifikatzera bideratuko duten tresna dira.

3.- Erakundearteko lankidetzan eta koordinazioan sakontzea da 2030eko Planaren berritasun nagusietako bat, berrikuntzaren aldeko konpromiso partekatu batean oinarrituta. Hiru foru-aldundiek gaur aurkeztu dituzten I+G+b babesteko ekimen estrategikoak konpromiso horren adibide ona dira.

4.- Jaurlaritzako sailak RIS3 estrategiaren hedapena bultzatzen ari dira, pilotaje-talde bidez. Izaera estrategikorik handieneko proiektuak eta ekimenak aurkeztu

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseiluaren akta

dituzte, gizarte-, ingurumen- edo ekonomia-erronkei aurre egitea bilatzen dutenak, eta, aldi berean, enpresa-sarearen garapena sustatzen dutenak.

Adibide gisa, foru-aldundiek eta Eusko Jaurlaritzak lan partekatuko hiru eremuetan bultzatutako 40 proiektu enblematiko baino gehiago berrikusi ditugu:

1.- Trantsizio energetiko-klimatiko;

2.- Trantsizio teknologiko-digitala; eta

3.- Trantsizio sanitarioa eta soziala.

Izaera estrategikoko ekimen eta proiektu horiez gain, pilotaje-taldeek egiten duten lanari balioa eman eta aitortu nahi dut. Talde horiek gero eta enpresa gehiago sartzen dituzte proiektu berriak aztertzeko eta identifikatzeko prozesuetan.

Pilotaje-taldeen lan hori Euskal Sistema Zientifikoak ere indartu du, eta, bereziki, duela gutxi onartu den bigarren Unibertsitatea + Enpresa Estrategia.

Estrategia horrek gehiago bultzatuko ditu Hezkuntza Sailaren eta EAEko enpresen eta enpresa-erakundeen arteko harremanak, etorkizunari berme handiagoekin aurre egitea ahalbidetuko diguten prestakuntza- eta talentu-beharrei aurrea hartzeko.

Amaitzeko, azpimarratu nahi dut Europako Batzordeak maiatzaren 17an Eskualde Berrikuntzarako Elkartea abiarazi zuela.

Euskadi, Europako beste 37 hautagairekin batera, ekintza pilotu honetan parte-hartzeko hautatu dute. Gure eskualdeetan ekonomia eta gizartea eraldatzeko politika berriak esploratzea da helburua, trantsizio berde eta digitalaren esparruan.


Gaur hemen aurkeztu diren proiektu eta ekimen estrategikoen bidez, Europa eraldatzeko asmo horretan parte hartzen dugu.

Euskadin, zientzia-, teknologia- eta berrikuntza-politiketan oinarritzen da asmo hori, eta politika horiek eboluzionatu egiten dute denborarekin, iraunkortasun ekonomiko, sozial eta ingurumenekora gehiago bideratuz. Eta gure proiektuetan gure zigilua gehitzen dugu, lankidetzara publiko-pribatua.

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseiluaren akta

Eskerrik asko ibilbide honetan eta helburu honetan parte hartzeagatik!"

Lehendakariaren hitzaldia amaitu ondoren, eta aztertzeko beste gairik egon ez denez, bilera amaitutzat eman da.



Cristina Uriarte Toledo

ZIENTZIA, TEKNOLOGIA ETA BERRIKUNTZARAKO KOMISIONATUA